

8. AKTA

2001eko ekainaren 26an ospatutako **GOBERNU BATZORDEA**.

Pasaiaiko Hirian eta Trintxerpeko Alkate-ordetzan, bi mila eta bateko ekainaren hogeita seian, Joan Karlos Alduntzin Juanena Alkate jaunaren presidentzian eta Joseba Belaustegi Cuesta Idazkari jauna bertan delarik, hurrengo zinegotziak bildu dira:

Joseba Xabier Portugal Arteaga j.
Rikardo del Pozo Gil de Albornoz j.
Anjel Ouviña Vidal j
Obdu Lorenzo de Dios a.

Arauz kurtsatu den deialdiaren arabera Gobernu Batzordea ospatzeko.

Lehendakaritzak konstataturik Gobernu Batzordea legez osatzeko behar hainbat partaide etorri dela, batzarraldia irekitzat eman du 18:00etan, ondoren Gaizerrendako hurrengo puntuak aztertzeari ekinez.

6/01 zenbakiko kontu eta fakturen zerrenda.

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea 6/01 zka. daraman kontu-fakturen erlazioa, HOGEITA LAU MILIOI SEIEHUN ETA BERROGEITA BI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA ZORTZI (24.642.168,-) pezetakoa.

1 eta 2. ziurtagiria: “Antxo Iparra 01 (C1-Azoka) ingurua hiritartzea”.

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea Pasai Antxoko “Antxo Iparra 01 (C1-Azoka) ingurua hiritartzea” obraren 1. eta 2. ziurtagiriak, Pedro Idarreta Lapazaran (B. K. eta Portuetako Injinerua) – ASMATU, Igor Urrutia Zulueta (B. K. eta Portuetako Injinerua) – ASMATU, Joan Karlos Lapazaran Izargain (Arkitektoa) eta Jose M^a Irazusta Garikano Udal Arkitekto Teknikoa) jaun Zuzendariak luzatua, CONSTRUCCIONES DONOSTI, S.A. (CODOSA) enpresa kontratistaren alde ZAZPI MILIOI ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEI MILA HIRUREHUN ETA HAMAR (7.860.310,-) eta SEI MILIOI SEIEHUN ETA BERROGEITA SEI MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA HAMAIIKA (6.646.751,-) pezetakoak hurrenez hurren. Hau guztia indarreango udal aurrekontuko (D-1658/00 eta D-1659/00) eta (D-1659/00) Disposamenduaren arabera hurrenez hurren.

3.- 6. ziurtagiria: “San Pedro 2.01 Morales Oliver-Esnabide Herri Eremua berriro hiritartzea”.

Gobernu Batzordeak erabaki du ontzat ematea “San Pedro 2.01 Morales Oliver-Esnabide Herri Eremua berriro hiritartzea” obraren 6. ziurtagiria, Joan Karlos Lapazaran Izargain (Arkitektoa) eta Jose M^a Irazusta Garikano (Udal Arkitekto Teknikoa) jaun obrazuzendariak luzatua, CONSTRUCCIONES DUMBOA, S.A. enpresa kontratistaren alde SEI MILIOI LAUREHUN ETA BERROGEITA HAMABOST MILA LAUREHUN ETA HAMAR (6. 455.410,-) pezetakoa. Hau guztia indarreango udal aurrekontuko D.943/00 Disposamenduaren kargura.

4.- 6. ziurtagiria: “Ulia etorbidea eta Azkuene kalea lotzeko bidea.

Gobernu Batzordak, Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena luzaturik, erabaki du ontzat ematea “Ulia etorbidea eta Azkuene kalea lotzeko bidea” obraren 7. ziurtagiria, Eduardo Satostegi Obra zuzendari jaunak luzatua CONSTRUCCIONES DUMBOA, S.A. enpresa kontratistaren alde, BI MILIOI SEIEHUN ETA HIRUROGEITA HIRU MILA EHUN ETA HOGEITA BEDERATZI (2.663.129,-) pezetakoa. Hau guztia indarreango udal aurrekontuko D-825/00 Disposamenduaren kargura.

5.- 8. ziurtagiria: “Santiago Plazaren urbanizazioa”.

Gobernu Batzordeak, Udal Aparejadoreak aurrez aldeko txostena luzaturik, erabaki du ontzat ematea “Santiago Plazaren urbanizazioa” obraren 8. ziurtagiria, Luis Peña, Mario Sangalli eta Rocío Peña jaun-andre Arkitektoek luzatua CONSTRUCCIONES OTEGI GAZTAÑAGA enpresa kontratistaren alde, ZORTZI MILIOI EHUN ETA HAMABOST MILA ZAZPIEHUN ETA HIRUROGEITA LAU (8.115.764,-) pezetakoa. Hau guztia indarreango udal-aurrekontuko D-449/00 Disposamenduaren kargura.

6.- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak aldatzea.

Ikusirik Gizarte Zerbitzuen Departamenduko Arduradunak 2001eko ekainaren 18an aurkezturiko proposamena, Gizarte Larrialdietako Laguntza Ekonomikoak Aldatzeaz, 2/01 zka. daraman proposamenari dagozkionak, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- 2/01 proposamenari dagokion Laguntza modifikatzea, Gobernu Batzorde honek 2001eko maiatzaren 21eko batzarraldian onartutakoa, espedientean agertzen den onuradunarena, bere baitan gertatu diren egoera-aldaketak direla eta, espedientean agertzen den kantitatea anulatuz.

BIGARREN.- Aipatu inportea Gizarte Larrialdien partidara itzulia izan dadila.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri Kontuhartzaitetzako Departamenduari ematea.

7.- Oarso Telebistari dirulaguntza.

A) Kultura eta Hezkuntzako Udal Batzorde Informatiboaren Lehendakariak 2001eko maiatzaren 22an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

OARSO TELEBISTARI 230.000,- pezetako kantitatea abonatzea, entitate honek eta Pasaiaiko Udalak 1999an sinatutako akordioaren arabera.

Hau guztia 05-481-451-00-01 eta indarreango udal aurrekontuko A-614/01 Baimenduaren kargura.

B) Euskararen Udal Batzorde Informatiboaren Lehendakariak 2001eko maiatzaren 22an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

OARSO TELEBISTARI 480.000,- pezetako kantitatea abonatzea, entitate honek eta Pasaiaiko Udalak 1999an sinatutako akordioaren arabera.

Hau guztia 10-481-451-00-01 eta indarreango udal aurrekontuko A-701/01 Baimenduaren kargura.

C) Gazteria eta Kirolen Udal Batzorde Informatiboaren Lehendakariak 2001eko ekainaren 8an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

OARSO TELEBISTARI 180.000,- pezetako kantitatea abonatzea 2001. urterako.

Hau guztia 07-481-457-00-01 eta indarreango udal aurrekontuko A-6991/01 Baimenduaren kargura.

8.- Karmengo Ama Herri Ikastetxeko Portugeseko Klubari dirulaguntza.

Kultura eta Hezkuntzako Udal Batzorde Informatiboak 2001eko maiatzaren 31an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

Karmengo Ama Herri Ikastetxeko PORTUGESEKO KLUBARI 150.000,- pezetako subentzioa ematea “Camões Eguna” antolatzeko.

Hau guztia 05-481-422-00-01 eta indarreango udal aurrekontuko A-674/01 Baimenduaren kargura.

9.- Alkartasuna Dantza Taldeari dirulaguntza Sloveniako Lent Festibalerako.

Kultura eta Hezkuntzako Udal Batzorde Informatiboak 2001eko maiatzaren 31an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

Alkartasuna Dantza Taldeari 250.000,- pezetako dirulaguntza ematea Sloveniako Lent Festibalerako.

Hau guztia 05-481-451-00-01 eta indarreango udal aurrekontuko A-672/01 Baimenduaren kargura.

10.- Alkartasuna Txiki Dantza Taldeari dirulaguntza.

Kultura eta Hezkuntzako Udal Batzorde Informatiboak 2001eko maiatzaren 31an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

ALKARTASUNA DANTZA TALDEARI 132.500,- pezetako subentzioa ematea VI Dantzari Txiki Eguna antolatzeko.

Hau guztia 05-481-451-00-01 eta indarreango udal aurrekontuko A-673/01 Baimenduaren kargura.

11.- A Pabela Productions-i dirulaguntza.

Gazteria eta Kirolen Udal Batzorde Informatiboak 2001eko ekainaren 8an egindako proposamenez, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

“A Pabela Productions” Gazte Elkarteari 450.000,-pezetako subentzioa ematea bideo-klubaren proiektua 3. urtez jarrai dzan.

Subentzioa bi epetan abonatuko zaio:

- %60 akordioa adostean.

- %40 abenduaren hasieran.

Hau guztia 07-481-457-00-01 eta indarreango udal aurrekontuko A-698/01 Baimenduaren kargura.

12.- Zahar Etxeentzako dirulaguntzak.

Eusko Jaurlaritza, Diputazioa eta Eudelek sinatutako akordio markoan kontenplaten den konpetentzia banaketak sortutako egoera berria dela eta, honen sinadura Udalean ez baita oraindik gauzatu, desfase bat gertatu da Zahar Etxeek Foru diputazioarengandik normalean jasotzen zituzten dirulaguntzetan.

Egoera hau nolabait arintzeko, Gobernu Batzordeak Gizarte Zerbitzuen Zinegotzi Delegatuak 2001eko ekainaren 14ean egindako proposamenez, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

Udalerriko Zahar Etxeei hurrengo paguak aurreratzea:

- AITONEN ATERPEA.....Pasai Donibane.....300.000,- pta.
- ZAHARREN BILTOKIA.....Pasai San Pedro.....350.000,- pta.
- ZAHARREN BILTOKIA.....Pasai Antxo.....400.000,- pta.
- JUBILATUAREN ETXEA..... Trintxerpe.....400.000,- pta.

Hau guztia indarreango udal aurrekontuko A717/01 Baimenduaren kargura.

13.- Ondare-erantzukizunezko hainbat erreklamazio.

A) Ruben Fonseca García jaunak egindako kalte-erreklamazioa SS-6000-BH matrikula duen ibilgailuaren gurpilean ustez eragindako kalteak direla eta 2001eko apirilaren 23an San Joan kaleko 1 zenbakiaren parean dagoen zuloan sartu zuela eta.

Ikusirik RUBEN FONSECA GARCÍA jaunak egin erreklamazioa, Pasaia udalerriko San Joan kaleko 1 zenbakiaren parean Lezora joateko Pasai Donibanetik irteten zela SS-6000-BH matrikula duen ibilgailuaren gurpila hondatu zitzaizola galtzadan zegoen zuloan sarturik eta 18.300,- pezeta erreklamatzeko dituelarik.

Ikusirik Udaltzaingoak 2001eko apirilaren 25ean egindako txostena, non adierazten den esandakoa egia dela.

Azterturik halaber begiz egindako akta non ikusten den galtzadaren eskuinaldean zulo bat dagoela 40 cm-ko diametrokoa eta 15 cm sakon, ontzat emanik badagoela erlazio kausala

udal jabetzakoa den kalearen hondamendia eta eragindako kaltearen artean, ontzat emanik 18.300,- pezetako kalte-balorazioa zuzen dokumentatua dagoela erreklamatzailerak ekarri dituen prezioen zerrendaren arabera, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- Eskatua ontzat eman eta 18.300,- pezetako kantitatea RUBEN FONSECA GARCÍA jaunari abonatzea bere ibilgailuaren gurpilean eragindako kalteen ordain udal galtzada egoera txarrean zegoelako.

BIGARRE.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

B) Mikel Otermin Berakoetxea jaunak egin erreklamazioa edukiontzi baten aurka jota SS-4981-BG matrikula duen bere ibilgailua ezkerreko aurreko hegalean mailatuek eragindako kalteak direla eta.

Ikusirik MIKEL OTERMIN BERAKOETXEA Udal honetako Udaltzai jaunak egin kalte-ordaina edukiontzi baten aurka jota SS-4981-BG matrikula duen bere ibilgailua ezkerreko aurreko hegalean mailatuek eragindako kalteak direla eta, 2001eko maiatzaren 16an Trintxerpeko Azokaren behebarruan aparkatua zeukanean.

Ikusirik Udaltzainburuak 2001eko maiatzaren 23an luzatutako txostena, non adierazten den nahiz eta bertan aparkatu ohi den ez dagoela baimenik eta baimenak arautzeko normarik ere.

Kontuan izanik, beraz, udal zerbitzukoak ez diren ibilgailuentzat han aparkatzeko ez dagoela gaitasun titulurik edo baimenik,

Kontuan izanik ez dagoela erlazio kausalik kaltearen eta inolako udal zerbitzuren artean.

Kontuan izanik halaber ez dela frogatua izan ezta gertatuak nola jazo diren ere, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- MIKEL OTERMIN jaun udaltzainak egindako erreklamazio edo kalte-ordain eskaera gaitzestea.

BIGARREN.- Azokako behebarruak ibilgailu partikularrak aparkatzeko galeraztea, zeren eta parke mobilekoen parkinerako bakarrik erabili behar delako eta karga eta deskagakoak aparkatzeko.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri udal-enplegatuei eta hirugarren pertsoneri ematea Azokaren kanpoaldean kartelak jarritz.

LAUGARREN.- Halaber jakitera ematea Udaltzaingoari eta Zerbitzu, Sare eta Mantenimenduaren departamenduari betetzea gauza dadin.

BOSGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

C) Mikaela Arratibel Lakuntza andreak egin kalte erreklamazioa, dirudienez Gure Zumardiko kalean 2001eko maiatzaren 4ean izandako erorketa dela eta, Azokaren parean, obra-balizamenduaren zinta batekin behaztopa eginda, zinta mutur batetik solte egon eta haizeak astindu zuelako.

Ikusirik MIKAELA ARRATIBEL LAKUNTZA andreak egin erreklamazioa, non eskatzen duen bere betaurrekoen armazoa abonatzeko Pasaia udalerrri honetako Gure Zumardiko kalean obra-balizamendu baten zintarekin behaztopa egin eta 2001eko maiatzaren 4ean erori egin zelako.

Ikusirik Udaltzaingoak 2001eko maiatzaren 23an luzatu txostena, non Antxoko barrutian zeuden zinegotziek horrela gertatu zela adierazten duten, gertatuen testigutza duten Azokako kontzesionarioek hori baieztatu zutelako, eta beraz gertatuak egiaztatuak izanik eta baita obren segurtatsun neurrien funtzionamendu txarraren eta erreklamatzailerak egin kaltearen arteko erlazio kausala, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- MIKAELA ARRATIBEL LAKUNTZA andreari 26.000,- pezetako kantitatea abonatzea bere betaurrekoetan izandako kaltea dela eta 2001eko maiatzaren 4ean erortzeagatik.

BIGARREN.- Abonua egiteko beharrezkoa izango da zeramatzkien betaurrekoen armazoa erabat hondatu zela, eta, bestela, murriztu egingo da balioaren diferentzia.

HIRUGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

D) Manuel Ageitos Agirrezabalaga jaunak egin erreklamazioa, Arrandegi eta Aranader kaleen gurutzean 2001eko uztailaren 4ean erori zelako, egiten ari diren obrak direla eta galtzada eta espaloien egoera txarra medio.

Kontuan izanik 2001eko apirilaren 4ean interesatuari jakitera eman zitzaioela ebazpen proposamenaren audientzia hamar egunez, MANUEL AGEITOS AGIRREZABALAGA jaunak egindako erreklamazioari buruz dirudienez Arrandegi eta Aranader kaleen bidegurutzean 2001eko uztailaren 4an erorketa izan zuela eta, gertatuak ez zituelako kreditatu deklarazioan dioen bezala.

Ikusirik MIGEL ANGEL LARRAÑAGA AZKARATE jaunaren idazkia MANUEL AGEITOS AGIRREZABALAGA jaunaren izen eta ordezkari izan egina, non (...) defentsarik eza kausatzen duela eta isiltasun administratibo positiboa.

Kontuan izanik nahiz eta idazkian esan jasotako notifikazioak gaitzetsi egiten duela tartekaturiko Gorako Helegitea, argitu beharra dago Toki Administrazioan ez dagoela Gorako Helegiterik, baizik eta Erreposizioaren Errekurtso Potestatiboa. Interesatuari notifikaturiko izapidearen aktua ere ez da bide administratiboari amaiera jarriko dion ebazpena, baizik eta ordenazio-diligentzia bat zeinaren bidez audientzia ematen baitzaio, bertan seinatzen diren epearen barruan egokiak derizkion alegazio eta justifikazioak, hau guztia Administrazio Publiko eta Prozedura administratibo Amankomunaren Erregimen Juridikoaren Legeko 84. artikulua araber, martxoaren 26ko 429/1993 Erret Dekretua.

Kontuan izanik dena dela inora ere ez dela ulertu behar isiltasun positiboa ematen dela eskatzaileak defenditzen duen bezala zeren eta Administrazio Publiko eta Prozedura Administratibo Amankomunaren Erregimen Juridikoaren Legeko 43. artikulua araber, martxoaren 26ko 429/1993 Erret Dekretuko 13. artikuluari buruz, edozeinetara ere ulertu beharko da ebazpena partikularraren kalteordainaren aurkakoa dela.

Ulertzen delarik eskatzaileak aurkeztu duen idazkian ebazpen proposamenean azaltzen diren elementu determinanteak ez direla desbirtuatu, hau da, eskatzaileak ekarri duen bertsioa eta lekukoek azaldutakoa ez direla berdinak eta, zehazki, kontraesana dagoelako eskatzaileak esandakoa, hots, erorketa espaloia egoera txarrean zegoela gertatu zela eta lekukoek emandako bertsioaren artean.

Kontuan izanik dena dela eskatzaileak ez duela alegatu eta ez dela frogatu galtzadaren egoera txarragatik izandako behaztopa izan dela kausa, ulertuz, beraz, ez degaoela frogatua eskatzaileak alegatutako gertaeren eta eskatzen duen kalte-ordainaren artean erlaziozko kausalitaterik, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- MIGUEL ANGEL LARRAÑAGA AZKARATE jaunak MANUEL AGEITOS AGIRREZABALAGA andrearen izen eta ordezkarietan formulatu kalteordainaren eskaera gaitzestea, akordio honen azalpen-partean ezarritako fundamentuen arabera.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

E) Miguel Coca Larrea jaunak egin erreklamazioa, Pasaia udalerrri honetako San Pedro kaleko 19ko harkaitza, kalera eror zitekeena, bere jabetzan ez zegoela demostratu behar izateak eragindako gastuak direla eta.

Ikusirik MIGUEL COCA LARREA jaunak 2001eko maiatzaren 15ean egindako erreklamazioa, non eskatzen duen idazkian aurkeztutako zuzenbideko fundamentuen arabera, hots, udalak aitortzea eskubidea duela berak jasotzeko Administrazioaren ondare erantzukizunaren kontzeptuan 191.211,- pezetako kantitatea Pasaiako Udalaren funtzionamenduaren ondorioz eta bere ondasun eta eskubideetan lesioak eragin zaizkiolako.

Kontuan izanik demandatua izan den Administrazioa ez duela kondenatu kostuetan Donostiako Liskar Auzi Administrazioaren epaitegiak 377/00 Ohiko Errekurtsioan, Gobernu Batzordeak, bertako zinegotzien aho batez,

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- MIGUEL COCA LARREA jaunak formulatu kalte-ordainaren eskaera gaitzestea zeren eta arazoa Liskar Auzi Administrazioaren konpetentzia delako, Administrazio horrekin zerikusirik ez duena beraz.

BIGARREN.- Akordio honen berri interesatuari ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

14.- Mendiola Bidea, 9an obrak legalizatzeko baimena.

Ikusirik udal-zerbitzu teknikoek 2001eko urtarrilaren 25ean emandako txostena, aipatu fatxadan legalizatu ezinezko obrak egin direlako, aurkako txostena ematen da aipatu fatxada berrabiltzeko obrak egiteko eta terraza bota eta berriro eraikitzeko lizentziari buruz, interbentzio hori baino lehenago amaituko beharko bailitzateke gaur izapidetzan dagoen xehetasun estudioa, Gobernu Batzordeak bertako zinegotzien aho batez

E R A B A K I D U

LEHENENGO.- UNAI GETE ANTIA jaunak Pasaia udalerrri honetako Mendiola bideko 9ko Jabekideen izenean aipatu edifizioaren iparraldeko fatxada berrabiltzeko obra txikiak egiteko eskaera gaitzestea eta baita terraza bota eta gero berriro eraikitzeko ere.

BIGARREN.- Interesatuari jakitera ematea aipatu obrak egiteko lizentziaren eskaera baino lehen xehetasun estudioa onartu behar dela behin betiko, gaur izapidetzan aurkitzen dena.

HIRUGARREN.- Interesatuari akordio honen berri ematea legozkiokeen errekurtsioekin.

Eta aztertzeko beste gairik ezean, 19:00etan, batzarraldia amaitutzat eman da, honen eduki guztia akta honetan jasoz, hau Alkate jaunak eta nik, Idazkari bezala ziurtatuz, sinatu dugularik